



Teknologia berriak, garapena ala hondamendia?



Nora Blázquez Zabaleta
June Díaz Alvarez
June Inza Etxeberria

AURKIBIDEA

AURKIBIDEA	2
SARRERA:	3
ABSTRACT:	3
HIPOTESIA:	4
MARKO TEORIKOA	5
TEKNOLOGIAREN HISTORIA	5
GIZAKIA ETA TEKNOLOGIA	6
ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA	7
TEKNOLOGIAREN INPAKTUAK	7
TEKNOLOGIA BERRIAK	8
METODOLOGIA:	9
DISEINUA	9
PROZEDURA	9
ONDORIOAK:	10
ONDORIO OROKORRA:	13
BIBLIOGRAFIA:	14
ERANSKINAK:	16
TERMINOAK DEFINITZEN:	
INKESTA: https://docs.google.com/forms/d/e/1FAIpQLSdpb1Uk3UkuUFibKPmCi43SaCQBvMAZdwwq50ZJ7p2aHLkZOw/viewform?usp=sf_link	17

SARRERA:

Etorkizun ez hain urrun batean, gizakiok teknologiarekiko zer lotura edukiko dugun galdetzen diogu geure buruari. Oso lotura estua izango dugula uste dugu, aurrerapen teknologikoak nola joan diren ikusita. Teknologia berri hauen inpaktua hainbat esparrutan aztertzea gustatuko litzaiguke; psikologikoki, moralki, hezkuntza munduan... Elon Musk ingeniari eta enpresaburuak microchip bat izan beharko genukeela deritzo, hemen dioten bezala:



*“Elon Musk believes that everyone should get neurosurgery. He desires everybody to acquire a Neuralink brain implant, which is a brain-machine interface developed by his business”*¹ (Pedada Sindhudha, 2021). Baina hau benetan gertatuko da? Eta, gertatuko balitz, gizartea prest egongo litzateke? Zer arazo etiko sortuko lituzke? Milaka galdera, eta erantzuna bilatzeko prozesu konplexua. Agian ez dago erantzun bakarra, izan ere, filosofian askotan aztertu dugun bezala, egiak subjektiboak izan daitezke. Baina zientifikoki erantzun bakarra aurkitzea posible izango ote da? Ikerketa egin ahala erantzuna jasotzea espero dugu.

ABSTRACT:

In the near future, humans will probably be really linked to technology, but we always ask ourselves how this type of link is going to be. We are sure we will have a close bond with technology. We want to investigate the impact of those points of view, such as psychology, moral aspects, in education... According to many researchers, we will have a “microchip”, for example, inside us, but will this happen?

¹ Elon Muskek uste du denek egin beharko luketela neurokirurgia. Mundu guztiak *Neuralink* garuneko inplanttea eduki dezan nahi du, bere konpainiak garatutako garun-makina interfazea.

And, if it happened, would society be ready for this change? Ethically, which type of problems can this bring? Thousands of questions, and a hard way to find the answers. Perhaps there is not only a possible answer, because, as we have seen in philosophy classes, truths can also be subjectives. But will it be possible to find only one scientific answer? We'll get the answer as we investigate.

HIPOTESIA:

Gai bat jorratzen hasi aurretik, honekiko ditugun ideiak eta burutazioak argi uztea garrantzizkoa iruditzen zaigu, izan ere, gero ikusi ahal izango dugu ea oker geunden edo gure pentsamenduak bide onetik zihoazen.

Horregatik, teknologia berrien inpaktuak etikoki zer nolako eragina izango duen hausnartzen aritu eta gero, abiatzen garen hipotesia honako hau da: hasiera batean, jendeak nahi ez izan arren, denbora igaro ahala, denok amaituko dugu teknologia berriekin elkarreraginean. Bestalde, gizartea behartuta sentituko da, sozialki ez dutelako gai ikusiko euren burua inposaketa honi uko egiteko. Agian, une batean behartzera iritsiko dira, eta jendeak bere borondatearen aurka egin beharreko zerbait izango da. Ikuspuntu etiko batetik egokia den edo ez aztertzea izango da gure lana eta baita jendeak zer pentsatzen duen ere.

Gainera, gure aburuz, teknologia berri hauek uste baina lehenago hasiko dira gure artean garatzen eta inoiz imajinatu ez ditugun aurrerapausoak gauzatuko dira (agian atzerapausoak direnak etikoki eta sozialki).

Gizartearen ikuspuntu hauek ikertzeko, hainbat inkesta egingo ditugu gure herrian, eta horrez gain, jende gehiagorengana hurbiltzeko, Internet bidezko google inprimakiko galdera batzuk prestatu ondoren, hauek zabalduko ditugu.

Laburbilduz, hipotesia zera litzateke: uste baina lehen garatuko dira teknologia berri hauek geure artean, eta gure kontzientzia behartuta sentitu daiteke hauekin elkarreraginean jardutera, presio sozialaren eraginez.



MARKO TEORIKOA


TEKNOLOGIAREN HISTORIA:

Teknologiak ez du jaiotze-datarik, hau da, ezin dugu esan urte jakin batetik aurrera sortu edo asmatu denik. Badirudi gure espeziearen hasieratik existitzen den zerbait dela. Izan ere, gizakiak beste hominido espezie batzuetatik bereizteko balio du.

Suaren konkista, tresna litikoen (harrizkoen) erabilera eta hizkuntza artikulatu eta sinboliko baten sorrera gure espeziearekiko hurbiltasuna adierazten duten teknologia-formak dira. Bilakaera teknologikoa hainbat arrazoi ekonomikorik, sozialek eta kulturelek bultzatzen dute. Kausa horietako batzuk, bizitza atseginago baten nahia eta giza jakin-mina dira.

Oro har, gizakiaren eboluzio teknologikoa ondo bereizitako hainbat etapatan sailkatzen da, nahiz eta gaur egungo etapa esaterako munduko alde guztietan berdina ez izan, egoera ekonomikoaren eraginaren gain baitago. Etapa horiek honako hauek dira: harri-aroa, metal aroa, erdi aroa, aro modernoa eta aro garaikidea.

Lehenengo etapak, gizadiaren hastapenak biltzen ditu, ehizatze, elikagaiak birrintzeko edo tribu aurkariengandik defendatzeko harrizko eta hezurrezko tresnak erabiltzen ikasi zuena, baita janaria prestatzeko sua ere. Ondoren metalen bilakaera hasi zen brontzearekin, kobrearekin eta burdinarekin lan egiten aritzen ziren.



Azkenik, Aro Modernoa aurrerapen zientifiko eta teknologikoaren aldeko apustua dela esaten da. Azken urteetan, ordenagailuek eta horien garapenak, aldaketa eta bilakaera dira teknologia berrien elementu garrantzitsuenetako bat.... Bideoa azken aldiko teknologia berri garrantzitsuenetako bat izan da.

GIZAKIA ETA TEKNOLOGIA:

Gizakiak betidanik arazoei aurre egiteko baliabideak sortu behar izan ditu.

Burura etortzen zaigun lehen aurkikuntza sua da. Hau aurkitu baino lehen, gizakiek ezin zuten berotasunik lortu eta elikagaiak berotzeko ez zuten inongo baliabiderik. Aurkikuntzaren ondoren, animaliak uxatzea eta gauean ikustea ere lortu zuten. Honek aldaketa garrantzitsu bat ekarri zuen eta eboluzionatzeko baliagarria izan zen. Gizakiek sua beraiek sortzearen lehen aztarna duela 200.000 urtekoa da gutxi gorabehera.



Aipatzea beharrezkoa den beste aurrerapen bat idazkera da. Lehen idazkera kuneiformea k.a. 3300.urtean sortu zen. Hasiera batean zergen ordainketa kontrolatzeko eta inbentarioak egiteko erabiltzen zen. Hala ere, denbora igaro ahala, informazioaren transmisioa egin zen honi esker, eta honek teknologiaren bilakaera azkartu zuen.

Aurretik aipatu dugun bezala, transhumanismoa mugimendu kultural eta intelektual bat da. Honen helburua, giza gaitasun fisiko zein intelektualak eraldatzea da. Teknologia ere, azken finean, hau lortzea du helburu. Gure gizakien berezko dituen gaixotasun, gabezia edota arazoak konpontzeko soluzio bat bilatzen du.

ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA

Zientziak zer papel jokatzen du? Edozein zientzialarik aurkez diezaioke zientzialariei behar bezala arrazoitutako tesia. Beste zientzialari batek kontraargudioak eman ditzake proba hobeak erakutsiz. Eztabaidaren eta proben azterketaren ondoren, komunitate zientifikoa ados jarriko da. Akordio hori egia da, "egia adostasunez"



deitzen dutena. Probak zenbat eta hobeak izan, orduan eta "egia gehiago adostasunez" ezarriko dira. Horrek esan nahi du zientzia frogetara egokitzen diren "adostasunezko egiak" metatzea dela; horregatik, zientzia bere kabuz zuzentzen da eta hori da bere bertute handia.

Zientzia etengabe egiaren bila ibiltzen da, egi "absolutu" bat, hain zuzen ere. Horregatik, etengabe ari da berriz ere gauzak ikertzen, hipotesien bidez aurretik egiaztat hartzen zuena aldatzen duen aurkikuntza baten bila. Gainera, orain geroz eta gehiago egin daiteke zientziaren gaineko birdefinizioa, izan ere, baliabide gehiago ditugunez, baliabide berri hauekin egia berriak aurkitzea errazagoa izango da.

TEKNOLOGIAREN INPAKTUAK:

Teknologiak eragin handia du ekonomian, berrikuntza teknologikoa oso baliagarria izan baita nazioarteko merkatuetan lehiakortasun-kostu handiagoak lortzeko. Teknologia da gaur egun herrialdeen lehiakortasunaren hazkundean eragin handiena duen faktorea.



Ingurumenean ere inpaktu handiak izan ditu teknologiak. Esaterako, kutsadura eta hondakinak, energia-baliabideak agortzea, lehen mailako iturriak eta iturri berriztaezinak (petrolioak, esaterako) masiboki eta gero eta gehiago erabiltzeagatik, habitatak eta animalia- nahiz landare-espezieak desagertzea.

TEKNOLOGIA BERRIAK

Teknologia berriek guztiz hartu dute gure gizartea. Edozein unetan eta edozein ingurunetan, teknologiaz inguraturik daude. Eta teknologiaren ibilbide amaitezin honetan, aurrerakuntza ugari garatu dira, eta inpaktu handiko teknologia berriak ditugu gure artean, baina, zeintzuk dira teknologia berri hauek? Sorkuntzak infinituak direla argi dago.



Konplexutasun maila altuetan murgildu baina lehen, adibide zehatz batera joko dugu, non begi-bistakoa baita gure hipotesian laburbiltzen duguna: gizakiok behartuta sentituko gara teknologia berri hauekin elkarreraginean jardutea, nahi ez izan arren. Honekin oso lotuta daude, horregatik, robotak. Sentimendu gabeko gailu hauek oso erabilgarriak dira hainbat lanetarako, eta presio sozialaren eraginez hauek erabiltzea normala izango litzateke. Baina hau ez da guztiz onuragarria, izan ere, momentu batean gizakien ordeztu robotak erabiliko dira hainbat ofiziotan, eta honen ondorioz langabezia areagotuko da hainbat esparrutan. Esate baterako, arropa dendetan ordaintzea egiteko orduan, geroztik eta ohikoagoa da makina batzuen bidez ordaintzea, edota tailerretan, oso mekanikoak diren jarduerak egiteko, pertsona fisikoez baliatzea geroztik eta ohiz kanpokoa da.

Bestalde, Inplantatutako chipak ere, azkenaldian garrantzia handia hartzen ari dira. Hainbat ikerketa egin dira tximuetan hauek inplantatuz.

METODOLOGIA:

DISEINUA

Proiektua aurrera eramanez ahal izateko, gure gertuko biztanleen ustea jakitea ezinbestekoa da. Horrela, ondorioak aterako ditugu inkesta bat burutuz, non zenbait galderen bidez jendearen pentsaerak eta ohiak jakin ahal izango baititugu. 30-35 pertsonen lagin bat jasoko dugu gutxi gorabehera, baina argi dagoena da hori ez dela gizarte oso baten egia, lagin bat besterik ez.

PROZEDURA

Inkesta hiru ataletan banatu dugu; lehenengoak, laginaren sexua eta adina jakitea du helburu, beti ere anonimoa izanik. Erantzun batzuk adinaren arabera desberdinak izan daitezkeenez, beharrezkoa ikusi dugu lehenengo atal honek zehaztasuna bilatzea. Bigarrenak, teknologiarekiko menpekotasuna aztertzen du, honek etorkizunean ondorioak ere izan ditzakeelako. Azkenik, etorkizunean gertatuko denari buruzko aurreikuspenak planteatzen dira, gure hipotesiarekin zerikusia duten galderak planteatuz.


Ikerketa hau aurrera eramateko, gure herriko kaleetan zehar jardungo gara, Urretxun eta Zumarragan zehazki esanda. Hori gutxi balitz, beste hainbat biztanleekin gailu bidez inkesta bidaliko diegu. Gure etxekoei, lagunei, ikastetxeko ikasleak eta irakasleak izango dira gehienbat inkesta honen erantzule. Datari dagokienez, inkesta aste batez edukiko dugu martxan eta kalean pare bat

egunetan pasatuko dugu galdetegia. Ondoren, erantzunak aztertu eta ondorio batera iritsiko gara.

ONDORIOAK:


Lan guzti honen helburua geure hipotesia ea bide onetik zihoan ala ez frogatzea zen, eta Internet bidez gauzatutako inkestaren bitartez, hainbat ondorioetara iristeko gai izan gara. Azter ditzagun beraz, gure herriko jendearen usteak.

Zenbat ordu igarotzen duzu gailu teknologikoekin orokorrean, lan esparrua kontuan izanik (ordenagailuak, tabletak, telebist...



Galdera honen erantzunak aztertuz gero, teknologiarekiko menpekotasuna nagusia dela ikus daiteke. Zenbat ordu egunean igarotzen duten gailu teknologikoekin galdetu diegu inkesta bete dutenei. Argi zegoen zer espero genuen, eta hala izan da. Jendeak teknologiarekiko menpekotasuna duela ikusten da. Aztertu ditzagun datuak zehatzago. %40k 2-4 ordu igarotzen ditu teknologiarekin eta 4-6 ordu egoten direnak %26,7 dira. Baina badago menpekotasuna ez duten gutxi batzuk, eta hauek adin altuena dutenei dagokie. Beraz, horren ondorioz, esan dezakegu gaur egungo gazteak teknologiari gehiago lotuta datozela.

Coronavirusaren krisiaren ondoren, zure teknologiaren erabilera handitu egin dela uste duzu?
30 erantzun



Azken bi urte hauetan jasandako egoera bereziak gure eguneroko ohiturak erabat aldatu dizkigu. Horregatik aukera bikaina iruditu zitzaigun gure galdetegi honen bidez Coronavirusa eta teknologia erlazionatuz galdera bat elaraztea. Gure hasierako ustearekin bat datorren erantzuna lortu dugu, hau da, krisi honen ondoren teknologiaren erabilera handitu dela. Hala ere, pertsonalki uste genuen portzentzai handiago batean erabiliko zuela jendeak teknologia eta bai, asko ia guztiak aukeratuko luketela. Aldiz, erdiak bakarrik uste du asko handitu dela teknologiarekiko erabilera eta %13,3ak ez dela bat ere ez handitu. Laburbilduz, argi dago Coronavirusak teknologiaren erabilera handitzea eragin duela.

Nola ikusten duzu zeure burua gailu teknologikoak ez dituzunean eskuragarri?

Hipotesian azaltzen dugun bezala, gure iritziz guztiok amaituko dugu uste baina lehen teknologia berriekin elkarreraginean, baina hau frogatu baina lehen, gaur egungo egoera aztertzea garrantzitsua iruditzen zitzaigun.

Horregatik, gure herriko biztanleek gaur egun zer nolako erlazioa duten gailu teknologikoekin aztertzea ezinbestekoa zen. Horretarako, gure inkestaren bitartez galdera ireki bat planteatu genuen: "Nola ikusten duzu zeure burua gailu teknologikoak ez dituzunean eskuragarri?". Jasotako erantzunek ez gaituzte batere harritu, izan ere, garapen teknologikoa gero eta azkarragoa da, eta argi dago gutxinaka ezinezkoa egiten zaigula mugikorra eta bestelako gailu teknologikorik gabe bizirautea.


Erantzunen arabera, gure laginaren gehiengoa urduri, galduta, agobiatuta edota estresatua sentitzen da gailu teknologikorik gabe. Arraro hitza erabiltzen dute haien sentipenak deskribatzeko, eta teknologiaren beharra dutela aipatzen dute askok, beraz argi dago ez dutela inongo arazorik teknologiarekiko menpekotasuna dutela aitortzen.

Hala eta guztiz ere, badaude beste erantzun batzuk non jendeak lasaitasuna bezalako sentimenduak transmititzen dituen, teknologiarik gabe daudenean beste hainbat gauza egiteko aprobeztatu dezaketelako. Azken erantzun hauek gehien bat

adin altuenak dituzten jendearenak dira, haien haurtzaroan ez baitzegoen horrelako lotura esturik gailu teknologikoekin. Zalantzarik gabe, belaunaldi berriek senti dezakete urduritasun eta sufrimendu gehiago, azken finean teknologiaren munduan barneratuta jaio baitira.

Etorkizunari begira, zeure barnean txip bat inplantatzeko prest egongo zinateke?


30 erantzun



Inkestaren bitartez, egunerokotasunaren ohituraz gain, etorkizunari buruzko galderak ere formulatu genituen. Gure hipotesian, etorkizunean txipak aurrera eramango zirela esaten genuen, eta herritarren iritzia jakitea ezinbestekoa iruditu zitzaigun. Hasteko, %60 ez zen bere barnean txip bat inplantatzeko prest egongo. Badaude ere zalantza egiten duen jendea, esate baterako, %26,7k. Gainerakoek, %13,3k, positibotzat hartzen dute txip hauek eta prest egongo lirateke beraien barnean izatea.

Nahi izango ez bazenu, presio sozialaren eraginez behartuta ikusdezakezu zeur burua inplante hori aurre eramaten?

30 erantzun




Gure hipotesiarekin jarraituz, presio soziala aipatu genuen. Jendea presionatuta sentitu daitekeela esan genuen, agian covid-aren txertoarekin gertatu zen bezala. Txerto hau jartzea ez da inoiz derrigorrezkoa izan, baina ez edukitzeak limitazio batzuk izatea suposatzen zuen, taberna batera adibidez ezin zen sartu. Txip hauekin, antzeko zerbait gertatu daiteke, gizarteak derrigortzea presio

sozialaren eraginez. Inkestaren erantzunak aztertu eta gero ikus daiteke ia erdiak, %46,7k zehazki esanda, ez du uste presio sozialik egongo danik. Galdera hau egitea pentsatu genuenean, ez genuen erantzun hau espero, gehiengoek presioa egongo zela pentsatzea uste genuen.

Teknologia berri hauekin, gure askatasunaren amaiera iristear dagoela uste duzu?

30 erantzun



Hasieratik behin eta berriro esaten ibili gara gure kezka handienetako bat teknologia askatasunaren amaiera bultzatuko ote zuen jakitea zela. Hori dela eta, beharra sentitu genuen honi lotutako galdera bat egitea eta biztanleriak zer deritzon ikustea. Nahiz eta kezagarria eta beldurgarria izan gehiengoak, %53,3ak, uste du teknologia berri hauekin gure askatasunaren amaiera iristear dagoela. %26,7ak berriz ez dakiela, eta ulergarria dela uste dugu, etorkizuna beti baita ezezaguna.. Beraz, ea etorkizun ezezagun horretan askeak izatea lortzen dugun eta gehiengoaren ustea okerra izatea erdiesten dugun.

ONDORIO OROKORRA:

Proiektuaren amaierara iristear gaude; grafiko konkretu batzuk behatu eta gero, gure hipotesiaren azterketa egingo dugu. Hasieran aipatu genuen bezala, teknologia berri hauek, txipak adibidez, uste baina lehen garatuko dira gure artan, eta gure kontzientzia behartuta sentitu daiteke hauekin elkarreraginen jardutera, presio sozialaren eraginez. Inkestaren bidez hau aztertuta bide onetik gindoazela frogatu ahal izan dugu, izan ere, jendeak neurri batean badaki presio sozialaren ondorioz agian txip batekin amaituko duela, COVID-19aren txertoarekin gertatu zen moduan.

Hala ere, jendearen iritziak anitzak izan dira eta batzuk ez datoz gurekin bat. Nahiz eta presio soziala egon, ez dute uste hasieran batean teknologia berri hauekin elkarreraginean jardungo direnik. Bestalde, esan genuen gure aburuz etikoki hainbat arazo eta gure askatasunaren amaiera ekarriko zuela mundu aurreratu honetan murgiltzeak, eta herritarrak bat datoz auzi honekin. Beste hainbat galderetan eztabaida sortu da, iritzi ezberdin ugari daudelako, baina hemendik aurrera zer gertatuko den ezin dugu guk determinatu, auskalo zer dakarren etorkizunak!

BIBLIOGRAFIA:

¹ Botella, Cristina (2009), et al. Avances en los tratamientos psicológicos: la utilización de las nuevas tecnologías de la información y la comunicación. Anuario de psicología, 2009, vol. 40, no 2, p. 155-170.

<http://repositori.uji.es/xmlui/handle/10234/22602>

² Brandom Ramón Palomino Fletes. ¿CÓMO AFECTA LA TECNOLOGÍA A LA SOCIEDAD?. Web orria:

http://www.cusur.udg.mx/es/sites/default/files/adjuntos/como_afecta_la_tecnologia_a_la_sociedad_02.pdf

³ Buxarrais Estrada. (2011). El impacto de las nuevas tecnologías en la educación en valores del siglo XXI.. Scielo, 14.

<http://www.scielo.org.mx/pdf/sine/n37/n37a2.pdf>

⁴ Chong, A. (Ed.) (2011). Conexiones del desarrollo : impacto de las nuevas tecnologías de la información (1-314). Latinoamérica: Inter-American Development Bank. <http://repositorio.minedu.gob.pe/handle/20.500.12799/3054>

⁵ Cristóbal Torres Alberó. (2011). EL IMPACTO DE LAS NUEVAS TECNOLOGÍAS EN LA EDUCACIÓN SUPERIOR: UN ENFOQUE SOCIOLÓGICO. Revista de docencia universitaria, 2, 10.

<https://revistas.um.es/redu/article/view/10951/10531>

⁶ Diéguez Lucena, A. (2020). Tecnología y transhumanismo. Niaia, 2021/01/29 kotsultatua <https://www.tecnologia-y-transhumanismo>

⁷ Gerald Q. Maguire, jr y Ellen M. McGee*. (2010). ¿Es posible implantar chips cerebrales? Momento para el debate. Revista de humanidades, 9(2), 139-152. https://dendramedica.es/revista/v9n2/Es_imposible_implantar_chips_cerebrales_momento_para_el_debate.pdf

⁸ "Historia de la Tecnología": Julia Máxima Uriarte. Azken edizioa: 2020ko azaroaren 4an. Eskuragarri: <https://www.caracteristicas.co/historia-de-la-tecnologia/> . Kotsultatua: 2022ko urtarrilaren 27an.

⁹ Hurtado Vargas, Luis Fabián Aguirre Hurtado, Byron Fabián (2019).

Análisis de biohacking, caso de estudio: implantes de microchip para humanos con tecnología NFC. 2022-01-31 kotsultatua, de Universidad Internacional SEK web orria: <https://repositorio.uisek.edu.ec/handle/123456789/3561>

¹⁰Luis Hortolano, José Manuel (1999): El impacto social de las nuevas tecnologías. Revista Latina de Comunicación Social, 24.
<https://mdc.ulpgc.es/utis/getfile/collection/rldcs/id/101/filename/562.pdf>

¹¹Pedada Sindhudha. (2021). Neuralink by Elon musk. Neurodevelopmental Disorders and Treatment, 4, 1.
<https://www.pulsus.com/scholarly-articles/neuralink-by-elon-musk.pdf>

¹²Quiroga, M del Pilar. (2011). El Impacto de las Nuevas Tecnologías y las Nuevas Formas de Relación en el Desarrollo. Psicología Educativa, 17, 147-161.
<https://journals.copmadrid.org/psed/art/ed2011v17n2a3>

¹³Urquilla Castaneda, A. (2018). El impacto de los implantes de los microchips en los Estados Unidos. ¿Esclavitud o beneficio?. Realidad Y Reflexión, (47), 108–121.
<https://doi.org/10.5377/ryr.v0i47.6280>

ERANSKINAK

TERMINOAK DEFINITZEN:

TEKNOLOGIA: espezie batek modu sistematiko eta arrazionalen behar edo arazo praktikoei erantzuteko ebazpen teknikoak deskribatu, azaldu, diseinatu eta aplikatzea ahalbidetzen duen zientifikoki antolatutako jakintza-multzoari deritzo.

TRANSHUMANISMOA: mugimendu kultural eta intelektual da. Teknologiaren bidez, giza gaitasun fisiko zein intelektualak eraldatzea du helburu. Gizakia, gaitasun handiko izaki bihurtzeko behar morala daukatela pentsatzen dute eta elite ekonomikoen, bereziki teknologiari lotutakoen, erlijio berria bihurtu da.

Pentsamendu horretan, teknologiaren eta zientziaren erabileraren bidez gizakiak berezko dituen gaixotasun, gabezia edota arazoak konpontzeko soluzio bat bila daiteke beti.

ADIMEN ARTIFIZIALA: izaki bizidunen prozesu arrazional eta deduktiboak burutzeko makina batek duen gaitasuna da. Adimen artifizialaren helburu nagusia makinek gaurdaino gizakiek soilik burutu ahal izan dituzten betebeharrak bete ahal izatea da, baita izaki bizidunen eta bereziki gizakien garunaren eta bere funtzionamenduaren ulermena areagotzea ere.

ZIENTZIA: zientzia edo jakintza modu objektibo eta sistematikoan, behaketaz eta arrazoimenez osatzen den ezagutza sailen multzoa da

MENPEKOTASUNA: jatorrizko harreman edo konexioa, botere handiagoarekiko mendekotasunari, aipatzeko erabil daitekeen, edo bere burua zaintzeko gai ez den subjektu baten egoerari.

ARAZO ETIKOAK: zuzenak ez diren eta maila moralean egoera intolerantea eta gatazkatsua ematen duten ekintza guztiak.

DETERMINAZIOA: zerbaiten ezaugarriak, mugak eta helburuak zehaztu eta finkatzea da. Askatasunaren kontrakoa dela esan genezake.

AURRERAKUNTZA: zientziak, teknikak eta arrazionalismoak gizartea ustez etorkizun hobe batera eramango dutela baieztatzen duen ideia da.

ASKATASUNA: pertsona bat zerbaitetan aukera izan, helburuak erabaki eta horretarako jokabidea aurrera eramateko ahalmena izatea da, beste pertsona, erakunde edo aginte batek jarritako mugarik gabe.

INKESTA: https://docs.google.com/forms/d/e/1FAIpQLSdpb1Uk3UkuUFibKPmCi43SaCQBvMAZdwwq50ZJ7p2aHLkZOw/viewform?usp=sf_link